



## Kultura, Kirol eta Jaietako Arlorako

### Gestiorako Plangintza Orokorra

#### 0.- Oinarri teorikoak

Politika kulturalen jatorria monarkia ilustratuan bila daiteke. Bertan alderdi kultural eta artistikoetako bokazio publikoarekin jokatzeko hasi ziren. Geroago, XIX eta XX mendearen hasieran, kultur ondarearen babesa eta dibulgazioa, eta arteen irakaskuntza Estatuaren zereginen artean zegoen. Baina gaur egungo politika kulturalari eragiten dioten ideia nagusiek Bigarren Mundu Gerraren gerraondoan dute jatorria.

Gerraondoaren testuinguruan, kohesio soziala garatzen zuten politikak martxan jarri ziren. Hauen helburua gerra aurrean bizi izandako konbultsio sozialak saihestea zen. Garai horretan Ongizatearen Estatuaz hitz egiten hasi zen; hiritarrei eskaini behar zizkien gutxienezko osasun-prestazioei, gizarte-laguntzei, heziketari, eta abarri buruz eztabaidatzen hasi zen.

Testuinguru honetan kulturaren demokratizazio kontzeptua jaio zen. Hau da, kultura herritar guztien eskubidea izan behar dela (kulturatzat, bakarrik maila altuko klase sozialen kultura hartuta).

Kultura eskubide honen oinarrian zera zegoen: alde batetik, oso nabaria zela hiritar guztiek mundu horretan sartzeko baliabide berdinak ez zutelako. Beste alde batetik, aktibitate artistiko eta kulturalen kostua gero eta handiagoa zelako eta instituzio publikoen diru-laguntza ezinbestekoa zelako gauzatu ahal izateko. Eta azkenik, ikusten zutelako gizarteak hainbat kultur jarduera martxan mantendu behar zuelako, gizarte bera, aberasteko eta “jantziagoa” egiteko. Azken ideia hau bere jatorria ilustrazioan dauka.

Kulturaren demokratizazioaren ideiak 1978ko Espainako Konstituzioan bere isla dauka 44.1 artikuluan non zera irakur baitezakegu:

*“los poderes públicos promoverán y tutelarán el acceso a la cultura, a la que todos tienen derecho”*

60 urteen amaieran sortutako konbultsioen testuinguruan hainbat kultur produktu berri agertzen da (rock, komikiak, ...) Produktu kultural berri hauek, herritarren artean (batez ere gazteen artean) zabalkunde handia zuten. Une horretan, goi-mailako kultura edo kultura ofiziala arbuizatzeko kontrakultura sortu zen. Kultura ofizialek urrundutako



taldeek 68ko maiatzean plazaratutako ideietatik eta gazteen parte-hartzearen aldarrikapenetatik jaiotako kultur ekintza hauetan demokrazia kulturalaren kontzeptua jaio zen. Jadanik, garrantzitsuena ez zen kulturaren mundura sarbidea izatea, bizitza kulturean hiritar guztien parte-hartze aktiboa baizik. Pertsona elementu aktibo eta sortzailea izan behar da; eta ez, besterik gabe, elementu pasibo eta jasotzailea.

1972ko Helsinkiko UNESCOren Eskualdeko Konferentziaren azkenen txostenean zera esaten da:

*“se trata menos de ampliar el acceso a un tipo de cultura ofrecido por grupos privilegiados que de promover una diversidad de expansión fundada en el pluralismo social y permitir a la mayoría una participación directa y activa en la vida cultural. En una época en la que un número cada vez mayor de jóvenes rechaza una cultura establecida en la que no reconocen ni el objeto ni la fuente de sus aspiraciones, la cultura debe ser más que nunca el fruto de la libertad. No sólo no debe estar al servicio de la propaganda política, sino que es preciso que, en bien de todos, se nutra de todas las corrientes del pensamiento”*

Demokrazia kultural kontzeptuaren inguruan animazio soziokulturala jaio zen. Bere helburua zera da; gizakiaren garapenaren prozesuan ekimenen estimulazioa eta komunitateen parte-hartzea bultzatzea.

Espainiako Konstituzioan ere, demokrazia kulturalaren ideia hau jaso egiten da. Bere 9.2 artikuluan zera irakur dezakegu:

*"corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en los que se integra sean reales y efectivas; remover los obstáculos que impidan o dificulten plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social".*

Giza Eskubide Unibertsalen Adierazpenean ere, bere 27 artikuluan, ideia bera jaso egiten da:

*"Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute, horregatik, dagozkien interesak eta materialak babestuak izatearen eskubidea."*

Demokrazia kulturalaren kontzeptuaren bilakaeratik *arteen politika integralen* ideia sortu zen. Artea ez da jadanik erakustaldia soilik, bere barnean hainbat ekimen bat



egiten dute. Antzerkian adibidez, politika globalek, antzerki-programazioekin batera, zera eskatzen dute: *heziketa, talde amateurren sustapena, talde profesional hasiberrietarako laguntzak, ...* Bestalde, demokrazia kulturalaren ideia eta kulturaren demokratizazioarena beti dira osagarriak; ezinezkoa baita hiritarren parte hartze aktiboa bultzatzea, baldin eta hauek ez badute kalitateko kultura jardueretara hurbiltzerik.

Estatuan, diktaduraren ostean kulturaren gastua era nabarian handitu zen. Baina 80ko hamarkadan, ea gastu hau mugarrik gabe has zitekeeneko eztabaida mahai gainean jarri zen. Baliabideak era eraginkorrean kudeatzeari eta kultur ekintzek duten inpaktu ekonomikoa aztertzeari garrantzia ematearekin batera kultur kudeatzailearen kontzeptua jaio zen. Arloko profesionalak gero eta teknikoagoak ziren eta kultur marketina lantzen hasi zen. Hala ere, UNESCOren eta Europako Kontseiluaren dokumentuetan, azken aldi honetan, berriro ere hiritarren parte-hartze aktiboaren beharraz hasi da hitz egiten; ez, soilik eskubide gisa, baizik eta kohesio sozialeko faktore garrantzitsua gisa. Bizi garen aniztasun kulturalaren gizartean, kultura jarduerak gatazka soziala saihesteko faktore garrantzitsuak dira.



## **1.- Kultura, Kirola eta Jaietako Arloaren jarduerarako helburu orokorrak**

Gaiari ekin baino lehen zehaztasun bat egitearen beharrean gaude; kulturaren definizioaren barnean Arloaren jarduera guztiak kokatzen ditugu, jai eta kirol zereginak ere.

Edozein politika kulturalak *barne kohesioa* izan behar du. Planteamendu orokor honek emango dio beharrezkoa den ardatz hau. Burutu behar den politika kulturalarekin koadro teknikoa bat etor daiteke ala ez; horrek ez du premiazko garrantzirik izan behar. Baina politika kultural hau gauzatu ahal izateko zehaztuta agertu behar da. *Politika kulturaletan beti izango da kaltegarria aritzea aritzeagatik edota loturarik gabeko ekintzak burutzea.*

Politika kulturalaren modeloen espezifikazio edo zehaztapen hau, berez, arduradun politikoei dagokie. Hobe beharrez koadro teknikoaren laguntza eta balorazioarekin, eta bertako elkarteekin eta agente sozialekin adosten bada.

### ***1.1. - Plan Estrategiko baten diseinua. Aukera balego Laudio Herria Berrindartzeko planaren barnean.***

Kultura, heziketa edota ikerkuntza bezala, etorkizunerako inbertsioa da; eta horregatik kulturaren plan estrategikoak zera bilatu behar du:

**1.1.1.** - Herriaren hirugarren sektorea aktibatzen lagundu egin behar du. Lortzen badugu gure auzokideak bere astialdia herrian bizitzea, edota inguruko herrietako jendea gurera etortzea, hainbat zerbitzu horretaz balia daiteke.

**1.1.2.** - Laudion beste garai batean eskualdean izan zuen nagusitasun kulturala berreskuratzen saiatu behar dugu. Nagusitasun hau ez da etorriko inguruko herriekin lehiatzetik; haiekin egindako elkarlanaren eskutik baizik.

**1.1.3.** - Herriaren irudiaren zabalkundea landu egin behar da burutzen diren kirol eta kultur ekintzen bidez. Aktibitateak eta ekitaldiak egiteari "*plus*" bat eskaini behar zaio gure herritarren artean eta herritik kanpo plazaratzerakoan.

**1.1.4.** - Kulturaren bidez auzokideen bizi kalitatea hobetzea bilatu behar dugu. Politika kulturalaren zeregina zera izan behar da; auzokideok gure herrian gustura bizi gaitezen.



**1.1.5.** - Aurreko lau puntuekin batera, oso argi izan behar dugu ezin garela erori merkantilismo hutsean. Ikuspegi ekonomikoak zentzua dauka, soilik, aurrerago zehaztuko ditugun helburuen testuinguruan.

**1.2.** - *Herritarren kultura maila igotzea, kuantitatiboki eta kualitatiboki kontsumo kulturala hobetzen.*

Gaur egun, oraindik ere, demokratizazio kulturala indarrean dago; are gehiago, herritarren gehiengoaren ohitura, masen kulturaren kontsumora bideratuta dagoenean.

Herritarrei luzatzen zaizkien kultura jarduerak eta zerbitzuen eskaintza zabalak izan behar dira. Herritar mota guztientzat pentsatuta egon behar dira; eta ez, soilik, politiko edo teknikariaren gustuaren neurrikoak.

Eskaintza kalitatezkoa izan behar da; elitismoan erori gabe, baina ondo egindako gauzak bilatzen. Eskaintza egonkor eta orekatua izan behar da; ezin dira programak nolnahi burutu, urteko erritmoan ohiturak sortu egin behar dira.

Eskaintza kulturala estimulatu eta bizkortu egin behar da. Estrategiak landu egin behar dira, ez bakarrik eskaintzaren ikuspegitik, baizik eta eskaeraren aldetik ere. Kulturarekin inolako harremanik ez duen sektoreetan eragin behar dugu animazio soziokulturalen bidez, marketin kanpaina egokien bidez, edota hezkuntzarekin batera lan egiten ohiturak sortuz. Beste aldetik, atzematzen diren demandetan oinarritu egin behar gara kultura kontsumitzailearen fideltasuna bilatzeko. Eta, aldi berean, talde eragileen eta sortzaileen bultzada bilatu behar dugu.

**1.3.** - *Sorkuntza kulturala estimulatu.*

Egia bada edozein herritar sorkuntza kulturalera hurbiltzea garrantzitsua dela (kulturaren demokratizazioa), “profesionalizatzeko” bidea jorratu nahi dutenak bultzatzeak ez dauka garrantzia gutxiagorik. Tailerretatik heziketa espezializatueta jausi egin behar da handik sortzaile sasi-profesionalak eta profesionalak laguntzeko.

**1.4.** - *Bertoko kultura promozionatu eta nortasun kolektiboaren ezaugarriak sortu.*

Estatuen gaineko tendentzien nagusitasunarekin batera sustiraiak eta berezko ezaugarriak berrindartzeko garaia ere bizi gara. Gure bertoko ohiturak bultzatu egin



behar ditugu (horra hor ditugun hainbat erromeria esaterako), baina bultzada hori bertoko egunerokotasunean jantzi egin behar da.

### **1.5. - Euskararen normalkuntza bultzatu.**

Normalizazio linguistikoa politika kulturalaren ardatz nagusietako bat izan behar da, eta horretarako Udalaren Euskara Arloarekin batera lan egin behar dugu. Kultura Arloaren zeregina jarduera kulturaletan euskararen erabilera ziurtatzea izan behar da, euskararekiko diskriminazio positiboan oinarrituta.

### **1.6. - Dagoen sare soziokulturala indartu eta herriko politika kulturean bere parte hartzea indartu.**

Auzokideen interesak eta eskariak kontuan hartu gabe ez dago politika kulturala egiterik, Udala ez baita bizitza kulturalaren eragile bakarra. Politika kulturala arrakastatsuagoa izango da baldin eta herriak duen sare kulturala sendoa bada; eta ez hainbeste, ekintzetan parte hartzen duen ikusleen kopurua handia delako soilik. Gaur egun korrontearen kontrako norabidean igeri egitea bada ere, asoziazionismoa landu egin behar dugu. Horretarako, asoziazionismo informala lantzen hasi behar dugu; herritarren topaketa guneak sortuz eta bultzatuz. Era honetan, zuzenki ez bada ere, asoziazionismo formala ere bultzatu egingo dugu. Azken batean gizarte zibilaren indarra antolatutako kolektiboen kantitate eta kalitatearekin neurtzen da. Gure azken helburua zera da; udal kultur politikan kolektibo hauen parte hartzea erraztea eta indartzea. Baina horretarako sare hau indartsua izan behar da.

### **1.7. - Ditugun azpiegiturak aztertuta premiazko beharrei aurre egiteko plan bat diseinatu.**

Holako lana udalak bere gain hartzen ez badu inork ez du hartuko. Ikuskizunen emanaldirako areto duin bat ezinbestekoa dugu. aukerak oso ondo aztertu behar ditugu, oinak lurrean jarrita. Laudioko kultura etxea ez bada berritzen lehen edo beranduago itxi egin beharko dugu. Sorkuntza kulturalera ez diogu inolako gunerik eskaintzen. Epe luze, ertain eta laburreko ekipamenduen plan orokor bat landu egin behar da. Eta plan horretan ezin ditugu kanpoan utzi dauden kultur zerbitzu pribatuak.



### **1.8. - *Udal politika kulturala herritar guztientzat eginda dagoela ziurtatu.***

Gizartearen sektore ezberdinen behar ezberdinei erantzun behar diegu. Nagusiek, gazteek, emakumeek, umeek dituzten berezko ezaugarriak oso kontuan izan behar ditugu gure politika kulturala gauzatzeko. Udalak, baditu Arloak ezarrita bereziki sektore hauekin lan egiteko. Lan hori zeharkakoa izan behar da udalaren beste Arlo guztiekin; baita gure Arloarekin ere. Arlo horiek lagundu behar digute ikuspegi sektoriala era egokian tratatzen denon artean burutu behar dugun kultur plan estrategikoan. Kromoen banaketa baztertu behar dugu eta elkarrekin jolasten hasi behar dugu. Hemen ere koordinazioa eta elkarlana ezinbestekoa ditugu. Gure lana ondo egin nahi badugu, gaur egun, atal honetan dugun arazoari aurre egin behar diogu.

Beste alde batetik, puntu honetan, erdigunea-auzoak eztabaida ere landu egin behar da. Dauden jardueren artean zeintzuk, noiz, nola eta zertarako atera behar diren erdigunetik oso ondo aztertu behar dugu. Auzoetan berezko bizitza bultzatu behar dugu, eta horrek ekintza solteak baino gehiago eskatuko dizkigu.

### **1.9. - *Herritarrekin komunikazio kanalak sortu.***

Komunikatzea informatzea baino gehiago da. Ezin dugu ahaztu komunikazioaren oinarriko bi legeak; lehenengoa komunikazio-eza ezinezkoa dela eta bigarrena benetakoa ez da igorleak esaten duena, hartzaileak ulertzen duena baizik. Egia bada komunikabideen munduan udalaren zeregina oso mugatuta dagoela, herritarrekin kanal eraginkorrak sortzen saiatu behar dugu, horretarako udalaren lan informatiboak politika kulturalarekin bat egin behar du. Beti ere, herritarren hurbiltasunaren bidean, informazio kanal hauen koherentzia bilatuta; eta inoiz ez, alderdikoia izanda.

### **1.10. - *Kulturaren ikuspegi ludikoa transmititu.***

Aurreko guztiak helburu bakarra dauka; pertsona guztien gozamina ahalbideratzea. Kultura berez atsegina izan behar da. Nahita nahiez kultura eta aisia bat datoz. Hor jaiek aparteko garrantzia hartzen dute. Jaiek, beraz, kultur plan estrategikoaren parte bat izan behar dute. Jaietan herritarrek bat egiten dute eta bertoko nortasuna indartzen da. Horrez gain, bere eragin ekonomikoa argi dago.

### **1.11. - *Kirola kultura gisa landu.***



Gaur egun, kulturaren arlo guztiekin gertatzen den moduan, kirola ikuskizun munduarekin gero eta lotura handiagoa dauka. Horren adierazlea dugu futbolaren nagusitasuna beste kirol guztien gainetik. Edota, azken urte hauetan txirrindularitzak jaso duen ahulezia prozesua.

Gure herrian dauden kirol elkarteek sozialki lan handia egin dute. Bere inguruan mugitzen duten masa soziala oraindik handia bada ere, nabarmenki jaitsi egin da.

Garai batean kirol jarduera guztia klubengatik inguruan garatzen zenez, Udalaren zeregina azpiegiturak eta laguntza ekonomikoak banatzera mugatu egin da. Orain arte, agian, besterik ez da behar izan; baina kirolaren kontzeptuaren aldaketa eta praktika-kirolak ikuskizunaren aurrean galtzen ari den indarra ikusita administrazioaren, eta gure mailan Udalaren zeregina berriro aztertu beharko dugu.

Gure herrian kirolak duen esparru sozial eta kulturala indartzeko urratsak eman behar ditugu, eta horretarako klub ezberdinekin batera gure herrirako kirol politikaren ardatzak ezarri behar ditugu. Ardatz hauek kirol modalitate bakoitzaren esparrua gainditu behar dute. Kirola bere orokortasunean landu egin behar dugu; praktika - lehiaketa - osasuna - aisialdia.

### **1.12. - Kalitatezko kultura kudeaketa lortu.**

Azken helburu hau instrumentala da. Kalitateko kudeaketa baten bidez aurreko helburu guztiak lortzea errazago izango dugu. Beraz, ezarritako helburuak lortzeko kudeaketa izugarri landu egin behar dugu; are gehiago, bizi dugun egoera ekonomikoan non errekurtsoak oso mugatuta dauden.





## **2.- Proiektuaren helburu zehatzak eta ekimenak:**

Aurreko atalean aipatutako helburu orokorrak zehaztu, epeetan kokatu eta bakoitzaren adierazleak identifikatu behar ditugu atal honetan. Helburu zehatz batzuk bat etor daitezke helburu orokor bi edo gehiagorekin eta gauza bera gerta daitezke adierazle eta ekintza edo jarduerekin.

### **2.1. - Plan Estrategikoaren diseinua.**

**2.1.1. -** Sentsibiltate politiko ezberdinetako eta gizarte zibilaren esparru ezberdinetako partaideekin Plan Estrategikoaren proposamena landuko duen lan taldea sortzea.

Jarduera (1): - Epe ertainean gauzatzeko.

**2.1.1.1. -** Gobernu Taldeari Laudioko Kulturarako Plan Estrategikoaren (LKPE) beharra adierazi proiektuarekin bat etor dadila.

**2.1.1.2. -** LKPE-aren txostenaren zirriborroa prestatu (oinarri bezala agiri hau erabil daiteke).

**2.1.1.3. -** Kultura eta kirola munduan herrian aktiboki ari diren hainbat pertsonari aurkeztu eta haien ekarpenak jaso.

Adierazleak: - Jasotzen diren ekarpen kopurua.  
- Parte hartzen duten pertsonen kopurua.

**2.1.1.4. -** Herriko alderdi politiko guztiarekin banan-banan batu eta haiekin lehenengo bilera batean kulturaren egoerari buruz, gure Arloaren zereginari buruz eta Plan Estrategikoaren beharrari buruz aritu.

**2.1.1.5. -** Sentsibiltate politiko eta sozial guztien artean dauden adostasun puntuak oinarri gisa erabilita LKPE lan zirriborroa egin eta erabiliko den metodologia zehaztu.

**2.1.1.6. -** Alderdi politikoei aurkeztu, haien erakarpenak jaso eta aurreratzean emango diren urratsetarako haien adostasuna bilatu.

Adierazlea: - Jasotzen diren ekarpen kopurua.  
- Parte hartzen duten alderdien kopurua.

**2.1.1.7. -** Sentsibiltate politiko ezberdinetako partaideekin zirriborroaren proposamena landuko duen lan taldea sortu eta *Plan Estrategikoa* lantzen hasi.



## **2.2. - Herritarren kultura maila igotzea, kuantitatiboki eta kualitatiboki kontsumo kulturala hobetuz.**

**2.2.1. -** Herrian dagoen eskaintza kulturalarekin, ikuspegi orokorraz duen urteko egutegia planifikatu.

Jarduera (2): Epe laburrean.

**2.2.1.1. -** Pasa den urtean burutu ziren ekintzekin egutegi bat egin eta herriko aktibitate kulturean gehien parte hartu zuten elementuak identifikatu.

**2.2.1.2. -** Egutegi kultural honetan ekintzak antolatzen parte hartu duten Udalaren beste Arloekin batu ikuspegiak eta ekintzak koordinatzeko.

**2.2.1.3. -** Egutegian egon daitezkeen kultur esparruen hutsuneak detektatu eta betetzen saiatu.

**2.2.1.4. -** Egutegiaren zirriborroa prestatu eta kultura agenteei horren berri eman iradokizunak presta ditzaten.

Adierazlea: - Jasotzen diren ekarpen kopurua.  
- Parte hartzen duten agenteen kopurua.

**2.2.1.5. -** Egutegiaren koordinazioa sor ditzaken tentsio gunean identifikatu eta inplikatuekin konponbideak bilatu.

**2.2.1.6. -** Egutegiaren proposamena antolatzaile guztiei aurkeztu haien iradokizunak jasotzeko.

**2.2.1.7. -** Egutegiaren proposamena *Kulturaren Aholkularitza Batzordean* aurkeztu eta onartu.

**2.2.2. -** Kultura Elkarteek antolatzen dituzten ekitaldien hedapena egin, bai beste elkarten aurrean, bai herritarren aurrean.

Jarduera (3) Epe ertainean.

**2.2.2.1. -** Elkarte bakoitzarekin harremanetan jarri komunikazioa trukatzeko (norabide bikoitzean) kanalak finkatzeko.

**2.2.2.2. -** Udalak herritarrekin dituen komunikazio kanaletan sistematikoki elkarteek eta Udalak burutzen dituzten aktibitateen berria eman.



- Adierazlea: - Komunikazio kanaletan lotutako talde kopurua.  
- Kanal bakoitza edukiz betetzeko jasotako ekintzen kopurua.

**2.2.3.** - Udalak antolatzen dituen ekintzen berri kultur agente guztiei zabaldu haiek hedapena egin dezaten.

Jarduera (4) Epe laburrean.

**2.2.4.**- Gizartearen sektore ezberdinetarako kanal edo bide egokiak bilatu.

Jarduera (5) Epe laburrean.

**2.2.4.1.**- Udalaren sektore ezberdinekin lan egiten duten teknikariek elkartu kanal horien definizioa eta gauzapena egiteko plana burutu.

- 1.1.- Gazte mailan.
- 1.2.- Emakumeen mailan.
- 1.3.- Hirugarren adina.
- 1.4.- Irakaskuntza mailan.

**2.2.5.**- Udalak berak sortutako kultura programazioa burutu.

Jarduera (6) Epe ertainean.

**2.2.5.1.**- Aurrekontua aztertu diru atal egoki bat ezartzeko

**2.2.5.2.**- Urteko egitaraua aztertu programazioan dauden hutsuneak identifikatzeko.

**2.2.5.3.**- Programazioan atzemandako hutsuneak betetzeko egon daitezkeen jarduerak planteatu. Aldez aurretik harremanak mantendu egin beharko dira lan egingo dugun esparruan interesa izan dezaketen elkarte edo kultura agenteekin.

**2.2.5.4.**- Programazioa gauzatu. Ahal izanez gero herriko elkarte edo kultura agenteak inplikatu.

- Adierazlea:
- Antolatutako ekintzen kopurua.
  - Antolakuntzan parte hartu duten elkarte edo agenteen kopurua.
  - Antolatutako ekintzetan parte hartu duen jende kopurua.

**2.2.6.**- Kultura zaletasunetik profesionaltasunera zubiak eraiki.

Jarduera (7) Epe luzean.



**2.2.6.1.-** Udal tailerretako monitoreekin batu sasi profesionalen esparruetan udalak izan dezakeen eragina aztertzeko.

**2.2.6.2.-** Kalitatezko arte jarduera duten herriko zaletuekin lan egin proiektuak aurrera ateratzeko planak prestatu.

**2.2.6.3.-** Udalak promotorearen rola hartu hainbat ekintza burutzeko, bai gure herrian, bai Laudioetik kanpo. (Laudioko margolarien erakusketa, herriko musika taldeen emanaldi zikloak, ...)

**2.2.7.-** Hezkuntza Arloarekin eta ikastetxeekin lan egin umeak eta eskolak kultura programaziora hurbiltzeko.

Jarduera (8) Epe ertainean.

**2.2.7.1.-** Umeentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintzak urteko programan zehaztu.

**2.2.7.2.-** Udalaren Hezkuntza Arloarekin bildu haien eta gure ekintzekin lan plangintza koordinatzeko.

**2.2.7.3.-** Proposamena eskolei luzatu eta haien iradokizunak jaso.

**2.2.7.4.-** Lan plangintza gauzatu.

Adierazleak: - Antolatu diren jarduera edo ekintza kopurua.  
- Parte hartu duten eskolen kopurua.  
- Parte hartu duten ikasleen kopurua.

**2.2.8.-** Inguruko hiriburuetan eta eskualdeko herrietan burutzen diren, eta gure herritarrentzako interesgarriak izan daitezkeen, ekintzen berri zabaldu eta ahal den neurrian parte-hartzea bultzatu eta erraztu.

Jarduera (9) Epe ertainean.

**2.2.8.1.-** Bilbon, Gasteiz eta eskualdeko eskaintza kulturala jaso eta emanaldi deigarrien (erakusketak, antzerkiak, ...) propaganda zabaldu.

**2.2.8.2.-** Egokia ikusten den kasuetan garraioa antolatu edota sarreraren erosketa bideratu.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.



**2.2.8.3.-** Holako ekintzetan parte hartu dutenekin eta interesatuta egon daitezkeen pertsonekin datu-base bat sortu, kultura jardueraren informazioa puntualki pasatzeko.

Adierazleak:

- Datu-basean parte hartzeko izena eman duten pertsonen kopurua.

**2.3.- Sorkuntza kulturala estimulatu.**

**2.3.1.-** Kultura zaletasunetik profesionaltasunera zubiak eraiki. (2.2.6)

**2.3.2.-** Musika arloan gure herriaren dagoen jarduera sasi profesionala aztertu.

Jarduera (10) Epe ertainean

**2.3.2.1.-** Herrian musikaren eta dantzaren irakaskuntzan aritzen diren elkarte eta agente ezberdinen azterketa burutu.

- Ikasleentzako kosteak.
- Irakasleentzako egoera laborala eta soldatak.
- Udalaren erakarpenaren kuantifikazioa.
- Instalazioen egoera.
- Aktibitate hauek mugitzen duten diruaren kalkulua

**2.3.2.2.-** Jarduera bateratzeko zirriborro bat prestatu.

**2.3.2.3.-** Zirriborroa agente ezberdinei aurkeztu ekarpenak egin ditzaten.

**2.3.2.4.-** Sektorearen jarduera ordenatu irakaskuntzaren goi mailako urratsak kontuan hartuz.

**2.3.3.-** Herriko artista nobelen emanaldien programa sortu.

Jarduera (11) Epe luzean.

**2.3.3.1.-** Musika, dantza eta arteen irakaskuntzan aritzen diren agenteekin harremanetan jarri maila altuko ikasleen eta artista berrien katalogoa sortzeko.

**2.3.3.2.-** Programaren zirriborroa prestatu.

**2.3.3.3.-** Programa agenteei aurkeztu haien iradokizunak egin ditzaten.

Adierazleak: - Aurkeztu diren ekarpenen kopurua.



- Parte hartu duten agenteen kopurua.

**2.3.3.4.-** Programaren difusioa, gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eraman.

**2.4.-***Bertoko kultura promozionatu eta nortasun kolektiboaren ezaugarriak zabaldu.*

**2.4.1.-** Bertoko jai eta erromerien promozioa egin.

Jarduera (12) Epe ertainean.

**2.4.1.1.-** Herrian dauden jai eta erromerien katalogoa prestatu.

**2.4.1.2.-** Jatorrizko izaera duten jaiak euskal kulturarekin bat egiten duten neurrian biziberritzeko eta indartzeko estrategiak aztertu eta proposamenaren zirriborroa egin.

**2.4.1.3.-** Jai batzorde, talde eta agenteei proposamena luzatu ekarpenak egin ditzaten.

Adierazleak: - Aurkeztu diren ekarpen kopurua.  
- Parte hartu duten agenteen kopurua.

**2.4.1.4.-** Jai eta erromeria hauen difusioa, gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eraman.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.

**2.4.2.-** Bertoko patrimonio kulturalaren sustapena egin.

Jarduera (13) Epe luzean.

**2.4.2.1.-** Herrian dagoen patrimonio kulturalaren katalogoa egin.

**2.4.2.2.-** Turismo bulegoarekin (edo dagokion arloarekin) promoziorako plan bat gauzatu.

**2.4.2.3.-** Laudioko herritarren artean patrimonioaren difusiorako ekintzen programaren zirriborroa egin.



**2.4.2.4.-** Zirriborroa kultura, turismo eta komertzio agente ezberdinei aurkeztu, haiek ekarpenak egin ditzaten.

**2.4.2.5.-** Programaren difusioa, gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eraman.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.

**2.4.3.-** Euskal kultura tradizionala bultzatu, kutsu folklorikoa gaindituz, egunerokotasunean indartuz.

Jarduera (14) Epe ertainean.

**2.4.3.1.-** Laudioko jaietan euskal kulturaren presentzia bultzatzeko plangintzaren zirriborroa landu. Hau, izaera tradizionala galdu gabe, kalitatezkoa izan behar da.

**2.4.3.2.-** Euskal kulturaren esparru ezberdinetan ari diren elkarteei zirriborroa aurkeztu haien ekarpenak egin ditzaten.

**2.4.3.3.-** Plangintza horretan, elkarteekin batera, elkarte ezberdinen lanen sinergia bilatu koordinazio eta elkarlanaren bidez.

**2.4.3.4.-** Plangintzaren proposamena Euskara, Kultura eta Kirolaren Batzordeari aurkeztu, iradokizunak egin ondoren onar dezaten.

**2.4.3.5.-** Plangintzaren gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eraman.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.  
- Parte hartu duten agenteen kopurua.

## **2.5.- Euskararen normalkuntza bultzatu.**

**2.5.1.-** Euskararen Erabilerarako Udal Ordenantzen aplikazioa.

Jarduera (15) Epe laburrean

**2.5.1.1.-** Ordenantzen aplikazioa Arloaren zereginetan zein esparruetan aplikatu behar diren identifikatu.



**2.5.1.2.-** Esparru ezberdinetan egiten den aplikazioa aztertu eta hauek betetzen ez diren kasuetan arrazoiak aztertu.

**2.5.1.3.-** Arloaren esparru guztietan Euskararen Erabilerrako Udal Ordenantzen aplikaziorako programa baten zirriborroa prestatu.

**2.5.1.4.-** Zirriborroa inplikatur dauden agente ezberdinei aurkeztu, haiek erakarpenak egin ditzaten.

**2.5.1.5.-** Programaren gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eramane.

Adierazlea:

- Ordenantza betetzen ez diren atzemandako kasuen kopurua.
- Ordenantzen aplikazio berrien kopurua.

**2.5.2.-** Arloko jardueran euskararen normalkuntza plana antolatu.

Jarduera (16) Epe luzean.

**2.5.2.1.-** Arloko esparru ezberdinetan egiten den hizkuntz erabilera aztertu.

**2.5.2.2.-** Euskara Arloarekin elkartu batera normalkuntza planaren zirriborroa prestatzeko.

**2.5.2.3.-** Planaren zirriborroa inplikatur dauden agente ezberdinei aurkeztu, haiek ekarpenak egin ditzaten.

**2.5.2.4.-** Planaren zirriborro zuzenduta Kultura Kontseiluan aurkeztu eta ekarpenak jasoe.

**2.5.2.5.-** Plana Kultura kontseiluan aurkeztu onartua izateko.

**2.5.2.6.-** Planaren gauzapena eta balorazioa agente ezberdinekin aurrera eramane.

**2.5.3.-** Euskara Arloarekin batera Agente sozialekin normalkuntza linguistikoaren planak osatu eta bideratu\*.

**2.6.-** *Dagoen sare soziokulturala indartu eta herriko politika kulturallean honen parte hartzea indartu.*





**2.6.1.-** Herrian dauden elkarteen erregistroa eguneratu eta haien errealitatea aztertu.

Jarduera (17) Epe laburrean

**2.6.1.1.-** Erregistroan dauden datuak berritu.

**2.6.1.2.-** Elkarteekin harremanetarako kanal sistematikoak eta efektiboak ezarri, jakin dezagun une guztietan aktiboki lan egiten ari diren elkarteak.

**2.6.2.-** Kultura eta Kirol Kontseiluen lana edukiaz bete.

Jarduera (18) Epe ertainean

**2.6.2.1.-** Kultua agenteen egoera errearen azterketa burutu.

**2.6.2.2.-** Lan plangintzaren proposamenaren zirriborroa prestatu.

**2.6.2.3.-** Zirriborroa agenteekin kontrastatu haien ekarpenak egin ditzaten.

Adierazleak: - Aurkeztu diren ekarpen kopurua.  
- Parte hartu duten agenteen kopurua.

**2.6.2.4.-** Zirriborro zuzenduta Kontseiluetara eraman aztertua izateko eta bertan ekarpenak egin daitezten.

**2.6.2.5.-** Lan plangintzaren onarpena eta gauzapena.

**2.6.3.-** Kultura Elkarteentzako aholkularitza bulegoa sortu.

Jarduera (19) Epe luzean

**2.6.3.1.-** Arlo honetan dauden esperientzien informazioa jaso.

**2.6.3.2.-** Proposamena aukerak esparruko agente ezberdinekin aztertu eta bideratzeko plan bat burutu.

**2.6.3.3.-** Aholkulari lana burutuko duten pertsonak trebatu.

**2.6.3.4.-** Zerbitzua martxan jarri eta jarduera eta balorazioa esparruko agenteekin burutu.

**2.6.4.-** Asoziazionismo ez-formala asoziazionismo formala bihurtzen laguntzen.



Jarduera (20) Epe ertainean.

**2.6.4.1.-** Asoziazionismo ez-formala ematen den esparruetan, esparru horien kudeaketaren inguruan eztabaidak sortzeko aukerak eman.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.

**2.6.4.2.-** Zuzenean kudeatzen diren zerbitzuetan elkarte formalen parte hartzea aztertu.

**2.6.4.3.-** Elkarte ez-formalei laguntza eskaini beraien burua legezatzeko bete behar den tramitazioan.

Adierazleak: - Erregistratutako elkarte berrien kopurua.

**2.6.4.4.-** Elkarte hauekin batu gure proiektuetan haien parte hartzea sartzeko, haien proiektuetan gure erakarpena egiteko, edota proiektu berriak batera aurrera eramateko.

## **2.7.-** *Ditugun azpiegiturak aztertuta premiazko beharrei aurre egiteko plana diseinatu.*

**2.7.1.-** Azpiegituren beharren katalogoa osatu; ez bakarrik dauden azpiegituren mapa eta hauek dituzten beharrak ezartzen, baizik eta premiazkoak ikusten diren eta ez ditugun azpiegiturak ezartzen.

Jarduera (21) Epe ertainean.

**2.7.1.1.-** Dauden instalazioen katalogoa egin. Bertan, gaur egun bakoitzak duen erabilerarekin batera, honakoak jaso egin beharko ditugu: erabilpen maiztasuna, dituen erabiltzaileen ezaugarriak, kudeaketa mota, sortzen dituen gastuak, dituen berezitasunak, kudeaketan hobekuntza posibleak, premiazko ekimenak, eta abar.

**2.7.1.2.-** Herrietan ohikoak diren, baina gure herrian ez dauden azpiegituren katalogoa burutu.

**2.7.1.3.-** Dauden instalazioetan orain arte eskaini ez diren zerbitzuak eskaintzeko aukerak aztertu.

**2.7.1.4.-** Kudeaketan kostutan ekiditeko proposamenak planteatu.



**2.7.1.5.-** Instalazioen lan ekimenen plana Lan eta Zerbitzuen Arloarekin batera burutu, non bakoitzaren premia eta gutxieneko kostea agertuko den.

**2.7.1.6.-** Azpiegituren ekimen programa eta faseen zirriborroa prestatu (beti ere plan estrategikoaren barnean).

**2.7.1.7.-** Planaren ahalbideratze ekonomikoa Udalaren Ogasun Arloarekin batera aztertu.

**2.7.1.8.-** Kultura eta kirol agenteei, Kultura eta Kirol Kontseiluei, zirriborroa aurkeztu haiek egokiak ikusten dituzten ekarpenak ezar ditzaten.

**2.7.1.9.-** Plana Euskara, Kultura, eta Kirola Batzordera eramane onartua izan dadin.

**2.7.1.10.-** Planaren gauzatzeko behar diren urratsak eman. Gauzatze hau, Udalaren beste Arloren batek burutzen badu, une guztietan ekimenaren gainean arituko gara gure aholkularitza tekniko eskainiz.

## **2.8.-** *Udal politika kulturala herritar guzientzako egina dagoela ziurtatu.*

**2.8.1.-** Kultura eta kirol eskaintzaren parte hartzaile potentzialen azterketa.

Jarduera (22) Epe ertainean.

**2.8.1.1.-** Azterketaren proiektuaren beharra kultura eta kirol agenteei luzatu, honen helburua ezagutu dezaten eta aldeko jarrera izan dezaten.

**2.8.1.2.-** Azterketaren proiektuaren berri sektorialki lan egiten duten Udalaren Arlo ezberdinei luzatu, haien ekarpenak eta elkarlana jaso ditzagun.

**2.8.1.3.-** Gaur egun dagoen eskaintza, bai generoaren, bai adinen, bai parte-hartzaileen jatorrien, bai hauen estratu sozialaren ikuspegitik aztertzeko galdetegia prestatu.

**2.8.1.4.-** Galdetegia Udalak (berdin da Arloak) antolatzen dituen ekintzei aplikatu.

**2.8.1.5.-** Galdetegia Udalaren laguntzaz burutzen diren ekintzei aplikatu, beti talde antolatzaileekin kontrastatuz.



Adierazleak: - Aztertutako jardueren kopurua.  
- Bildutako galdetegien kopurua.

**2.8.2.6.-** Galdetegiaren emaitzak sektorialki lan egiten duten Udala Arlo ezberdinekin batera aztertu.

**2.8.1.7.-** Azterketaren emaitzen arabera, sektorialki lan egiten duten Udala Arlo ezberdinekin batera, zuzenketarako jardueren plangintza prestatu.

**2.8.2.-** Auzoetan bertan sortutako jarduera kulturala bultzatu.

Jarduera (23) Epe luzean.

**2.8.2.1.-** Auzoen idiosinkrasia kontuan izanda auzo bakoitzarentzako ekimen plangintza prestatu.

**2.8.2.2.-** Auzo elkarteak dauden kasuetan plangintzaren proposamena aurkeztuko zaie haien ekarpenak egin ditzaten.

**2.8.2.3.-** Ekimen programa gauzatzeko auzo elkarteekin edota auzokideekin elkarlana bilatu.

**2.8.2.4.-** Ekimenak martxan jarri eta jarduera eta balorazioa parte hartu duten auzokideekin burutu.

Adierazleak: - Antolatu diren ekimen kopurua.  
- Parte hartu duten herritarren kopurua.

**2.8.3.-** Auzoetako jaiei buruzko hausnarketa egin eta hauen gauzapena birdefinitu; auzoko jaia auzoko dinamikaren sortzaile bihurtuz.

Jarduera (24) Epe ertainean

**2.8.3.1.-** Auzo ezberdinetako jaien azterketa egin.

**2.8.3.2.-** Azterketaren datuak oinarria izanda eztabaidarako ardatzak ezarri.

**2.8.3.3.-** Herriko jai batzordeekin eta auzokideekin eztabaida burutu.

Adierazleak: - Ekimena burutu den auzoen kopurua.  
- Parte hartu duten agente eta herritarren kopurua.



**2.8.3.4.-** Auzoen jaien antolakuntzan Arloaren elkarlana planteatu. Udalak, gastuen fiskalizazioaren gain antolakuntzan ere parte hartu behar du; auzoetako jaiak Laudioko kulturaren zati bat diren heinean.

## **2.9.-** *Herritarrekin komunikazio kanala sendoak sortu.*

**2.9.1.-** Udalaren Arlo ezberdinek erabiltzen dituzte kanalak aztertu eta koordinatu.

Jarduera (25) Epe laburrean.

**2.9.1.1.-** Udalaren Arlo ezberdinek erabiltzen dituzte kanalen azterketa egin.

**2.9.1.2.-** Kanal ezberdinen erabilerari buruzko hausnarketa planteatu Udalaren Gobernu Taldeari. Komunikazio irizpideak ezartzeak, Arloen arteko komunikaziorako koordinazioak, udalak sortzen duen informazioaren kudeaketa bateratzeak eta “marka korporatibo” bakar baten menpean lan egiteak dakartzaten onurak arlo ezberdinetako buru tekniko eta politikoeekin aztertu.

**2.9.1.3.-** Udalaren informazioaren kudeaketarako zirriborro bat prestatu.

**2.9.1.4.-** Informazioa sortzen duten Udalaren Arlo ezberdinekin zirriborroa landu.

**2.9.1.5.-** Landutako proposamena Gobernu Taldeari aurkeztu, bere iradokizunak egin ondoren, onar dezan.

**2.9.1.6.-** Komunikazio plana gauzatzeko Arloen arteko koordinazio sistema eraginkorrak eratu.

**2.9.1.7.-** Komunikazio plana gauzatu.

## **2.10.-** *Kirola kultura gisa landu.*

**2.10.1.-** Kirola kontseilua edukiaz bete.

**2.10.2.-** Kirol modalitate ezberdinetako praktika ludikoa ume eta gazteen artean bultzatu.

Jarduera (26) Epe ertaina.



**2.10.2.1.-** Ume eta gazteen artean kirol praktikaren errealitatearen azterketa burutu.

**2.10.2.2.-** Plangintza baten zirriborroa prestatu.

**2.10.2.3.-** Zirriborroa eskolei, klubei eta Udalaren Gazte Arloari aurkeztu haien ekarpenak egin ditzaten.

**2.10.2.4.-** Ekimena martxan jarri, jarduera eta balorazioa parte hartu duten eskola eta klubekin burutuz.

**2.10.3.-** Kirol modalitate ezberdinetako praktika federatua gazteen artean bultzatu.

Jarduera (27)                      Epe luzera.

**2.10.3.1.-** Gazte eta umeen artean kirol praktika federatua bultzatzeko planaren borradorea prestatu. Plan hau kirolaren praktika ludikoaren planaren jarraipena izan behar da.

**2.10.3.2.-** Klub ezberdinei plana aurkeztu berain ekarpenak egin ditzaten.

**2.10.3.3.-** Esperientzia parte hartu nahi duten klubekin batera ekimena martxan jarri eta balorazioa egin.

## **2.11.-***Kulturaren ikuspegi ludikoa transmititu.*

Helburu hau zeharkakoa da. Beraz, lantzeko, ekintza zehatzik ez izan arren; arestian aipatutako ekimen guztietan presente egon behar du. Jaiak eta kirola kulturaren arlo ludikoarekin batzerakoan denok bat egiten dugun bitartean, arte edota kultura programazioak egiterakoan, askotan, ahaztu egiten zaigu. Horren ondorioz zera gerta daiteke; indarra kopuruan eta ez kalitatean jartzen badugu, esparru bat bultzatu nahian, kontrako efektua jaso dezakegula. Programazioa neurrikoa, eta beti kalitatezkoa, izan behar da. Gure publikoa hurrengo batean, berriro ere, parte hartzeko gogoarekin gertu behar da. Programazioa gure publikoarentzat, dugun publikoarentzat, egin behar dugu. Beti haiengandik apurtxo bat gehiago eskatzen baina haien kultura bilakaera oso presente izaten.

## **2.12.-** *Kalitatezko kultura gestioa lortu.*

**Laudio**



**Llodio**

KULTURA ETA KIROLAK ARLOA  
Tlf.: 94 403 4900 / Fax.: 94 403 4754

ÁREA DE CULTURA Y DEPORTES  
kultura@laudiokoudala.net

Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)

Esan dugun bezala azken helburu hau instrumentala da, Horregatik hurrengo puntuan, lan metodologiaren puntuan, landuko dugu. Metodo berak ahalbideratuko du gestioaren kalitatea.

Gobernu Taldeak ezarritako irizpideak oinarria izan beharko da, talde lana eta elkarlana (bai Arloan, bai Udalaren beste Arloekin, bai herritarrekin) lan metodologia, eta planifikazioa ardatza. Era honetan gure gestioa neurtzeko gai izango gara eta ezarritako helburuekiko emango diren desbideratzeak atzemateko eta zuzentzeko gai izango gara.



### **3.- Lan metodologia**

#### **3.1.- Arloko koadro teknikoa lan-talde auto-bideratua gisa aritu behar da.**

Proiektuaren partaideak sentitu behar dira. Talde eragilea Arloko teknikariek eta idazkariak osatuko dute. Talde hau astero bilduko da Arloaren dinamika aurrera eramateko eta ezagupenak, trebeziak, eta esperientziak elkartrukatuko ditu. Lantalde honen partaideen artean lan eremuak banatuko dira. Baina horrek ez dut esan nahi lan eremuen artean gaindiezinak diren mugak zehaztuko direla; langile bakoitzak jakin behar du zein eremutan mugitzen den, baina beste eremuetan aritzeko gaitasuna izan behar du. Hori bai, gai bat hartzen duen pertsonak jarraipena egingo dio hasieratik bukaeraraino. Beste edonork gaiaren bilakaeran parte hartzen badu lehenengoaren zuzendaritzapean arituko da.

Asteko koordinazio bilera horretan, lan berriak eta zehatzak komentatzea eta banatzeaz gain, guztion aurrean, burutzen ari garen lanen gorabeherak jarriko dira mahai gainean. Partaide guztiek gai guztiei buruz ekarpenak egin ahal, eta behar, izango dituzte. Bilera hauen zuzendaritza koordinatzailearen eskuetan egongo da eta idazkariak akta batean jasoko ditu bakoitzak hartutako konpromisoak eta lanak burutzeko ezarritako epeak. Landuko den gaiak horrela eskatzen duenean, bilera hauetan Arloko beste lankide batzuk, edota Arloko langilea ez den pertsonaren batek, parte har dezakete.

#### **3.2.- Gure Arloak Udalaren beste Arloekin batera lan egin behar du.**

Batzuekin elkarlan eta lanen banaketa oso argi dago; Udaltzaingoa edota Lan eta Zerbitzuen Arloarekin adibidez. Beste batzuekin elkarren arteko konpetentzian aritzen garela sentazioa dago; horra hor Emakume, Gazteria eta Hezkuntza Arloa edo Euskara Arloa. Bai batzuekin bai besteekin Arloen arteko harremana sistematizatu egin behar dugu. Guk ez diegu esango beste Arloei bere lana nola burutu behar duten, hori inork ez dakielako haiek baino hobeto. Baina elkarren arteko beharrak aztertu behar ditugu, metodologia sistematiko eta eraginkor bat sortzeko. Era honetan, une guztietan, guztiok izan dezagun aurrera eramaten ditugun lanen informazioa. HAZ (Herritarren Arrerako Zerbitzua) dugu filosofia horren adibide argia, nahiz eta gaur egun, oraindik, Udalaren Arlo ezberdinok gurekin zerikusirik ez duen zerbait gisa izan.

#### **3.3.- Arloko buru politikoa kokatuta egongo da koadro teknikoaren gainean.**





Zinegotzi honekin, eta orokorrean udalaren koadro politiko osoarekin batera lan egin behar dugu. Korporazioa eta bereziki Gobernu Taldeak bere politika kulturala zehaztu egin beharko du, Arloko Teknikariok hau gauzatu ahal izateko.

“Legeak esleitzen dizkien eskuduntzez haratago, arduradun politikoek berezko eginkizuna dute zehaztea lortu nahi dituzten helburuak eta hauek lortzeko estrategiak. Bestalde, zuzendaritza eginkizuna duten teknikariek esleitu dizkieten baliabideak, modurik eraginkorrenean, kudeatu behar dituzte, gobernu-taldeak ezarri dituen helburuak lortzeko.

Arduradun politikoa kudeaketaren zehaztasunean (“mikrokudeaketa”) sartzen denean bi eragin negatibo sortzen ditu. Alde batetik, helburu estrategikoak lortzeko bere dedikazioa murriztu egiten du, eta lidergo politikoak ahalmena galdu egiten du. Bestetik, egitura teknikoarekin arazoak izateko hazia jartzen du, egitura teknikoaren eremuan sartzen baita.”

IVAP “Udal gida (2008) / Guía Local (2008)” Ed.:2008

Teoria oso argi badago ere, hau praktikara eramatea ez da hain erraza, batez ere gure arloan. Alderdi politikoek, normalki, ez dute zehaztuta beraien herri mailarako politika kulturala; nahiz eta, orokorrean, zer nahi duten edota zer ez duten nahi argi izan. Espresuki azalduta edo teknikarion laguntzaz finkatuta, politika horiek dira Arloko profesionaloi gauzatzea dagozkigunak. Horregatik politiko eta teknikarion arteko komunikazioa izugarritzko garrantzia dauka. Arloaren zereginen ardatzak Zinegotzi Delegatuarekin adostu beharko dira. Hori bai, behin ardatzak ezarrita eguneroko gestioa Arloko Teknikarion eskuetan egongo behar da; beti ere, Zinegotziaren gain-begiradapean. Hori posible izateko koordinatzaileak, une guztietan, Arloaren lanen bilakaeraren informazioa emango dio ardura duen politikoari. Honek, egokia ikusten badu, ezarritako ildoan inguruan aldaketak proposa ditzan.

Ezarritako ildoan gainetik edota ildo hauetatik at sor daitezkeen, eta sortuko diren gaiak arduradun politikoak eta teknikariak, elkarrekin landuko dituzte. Baina, saiatuko da beti, arazo puntualen konponbidetan, ikuspegi orokorrak eta ildoak lantzen, eta ez unean uneko erabakiak hartzen.

### 3.4.- Azken lan esparrua hiritarrekiko harremana dugu.

Hau Arloaren benetako zeregina da, eta zeregin honek justifikatzen du aurreko lan metodoen planteamendua. Arloa, hiritar, elkarte eta taldeen zerbitzuan aritu behar da. Hau posible izateko dauden komunikazio kanalak indartu egin behar dira eta berriak sortu. Ditugun Kultura eta Kirolaren Kontseiluak edukiz bete behar ditugu eta Arloaren kudeaketako maila guztietan herritarren parte hartzea bultzatu.



Herritarren parte hartzea arautu izan daiteke (Kultura eta Kirol Kontseiluak) edo arautu gabea, baina erabakiaren eskuduntza beti ordezkaritza politikoan egongo da. Herritarrekin batera lan egin nahi badugu, hauek ezin ditugu gure morroiak bihurtu; baina gu haiena, ezta ere. Denok batera arraun egin behar dugu norabide berean; denon artean ezarritako norabidean. Hau posible izateko bat-egiteak landu eta bilatu behar ditugu; eta ikuspuntuak eta iritsiak batera ezinak direnean dagoen moduan jaso. Arloak zirt edo zart egiteko beharrea dagoen kasuetan, jarrera guztiak kontuan hartuko ditu eta dagokionak erabakiko du. Herritarren parte hartzerako sortu behar ditugun eremuetan elkarlana bilatu egin behar da, bai gestioaren ardatzak ezartzerakoan, bai hau gauzatzerakoan.

Orain arte elkarteentzat Udala diru iturri bat besterik ez da izan. Idei horrekin bukatu behar dugu. Udalak bere helburuak zehatu behar ditu, Hauek bideragarriak izateko agente sozialen egoera, lanak, nahiak eta errealitatea oso kontuan hartu behar da. Udalak ez du elkarteen egitasmoetan interbentzionismorik egin behar eta haien zereginen autonomia urratu behar; baina, elkarlana eskainiz, bere ikuspegi globala ezarri behar du.

Laudio, 2013ko urriaren 1a  
Kultura, Kirol eta Jaietako  
Arloaren Koordinatzailea.

-Jabi Ramírez Rojo-